

Udalerriko eta Covid-19aren inpaktuak eragindako saltokiak, ostalaritza-establezimenduak eta zerbitzu profesionalak berriz ireki edo aktibatzekeo dirulaguntzak emateko premiazko deialdiaren oinarriak.

Enkarterri Zerbitzuak SLko Administrazio Kontseiluak 2020ko maiatzaren 15an onetsi ditu COVID-19ak eragindako jardueraren debekua kendu ostean udalerrian dauden eta euren fakturazioa % 75 edo gehiago murriztu zaien saltokiak, ostalaritza-establezimenduak eta zerbitzu profesionalak berriz irekitzeko eta aktibatzekeo dirulaguntzak emateko premiazko deialdiaren oinarriak.

Eta horren berri ematean da, denek jakin dezaten, eta dirulaguntza horien oinarri osoak argitaratzen dira.

Eskaerak hemen aurkeztu beharko dira:

— Zallako Udaleko Erregistro Telematikoa.

Zallako Udaleko Erregistro Orokorrera postaz bidalita, baldin eta postaz bidalitako egunean zigilatuta badago.

— Zallako Udaleko Erregistro Orokorra:

Kosme Bibanko 1

48860 -Zalla – Bizkaia

Eskaerak aurkeztekeo epea oinarriak hilabetekoa izango da, oinarriak BAOan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Ostalaritza-Establezimenduen kasuan, eskaerak aurkeztekeo epeak, administrazio publiko eskudunak lokalen barruan baimentzen duen egunetik aurrera hasita hilabetekoa izango da

Hori guztia jendaurrean jartzen da, orok jakin dezan.

Zalla, 2020ko maiatzaren 15an.—Administrazio Kontseiluko presidentea, Juan Ramón Urkijo Etxeguren

Udalerriko eta Covid-19aren inpaktuak eragindako saltokiak, ostalaritza-establezimenduak eta zerbitzu profesionalak berriz ireki edo aktibatzenko dirulaguntzak emateko premiazko deialdiaren oinarriak.

1.—Diruz lagundu daitekeen xedea eta epea:

Dirulaguntzaren deialdi honen xedea da 10 langile baino gutxiagoko saltoki, ostalaritza-establezimendu eta zerbitzu profesionalak ematea (mikroenpresa, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinaren arabera), alde batera utzita haien figura juridikoa, baldin eta jarduera Zallan alta emanda badute 2020ko martxoaren 14a baino lehen eta 463/2020 Dekretuaren arabera jarduera eten egin behar izan bazuten edo euren fakturazioa % 75 edo gehiago murriztu bazaie.

Alarma-egoeraren deklarazioan, behin-behineko aparteko neurriak hartu ziren birusa prebenitu eta geldiarazteko eta gizarte-, osasun- eta ekonomia-erloto eragina arintzeko. 463/2020 EDaren 10. artikulua onetsi egin zuen txikizkako lokalak eta establezimenduak jendearentzat ez irekitzea, honako txikizkako merkataritza-establezimendu hauek izan ezik: janari, edari eta premiazko produktu eta ondasunen dendak; farmazia- eta osasun-establezimenduak; optikak eta ortopediak; higiene-produktuen dendak; prentsa- eta paper-dendak; automoziorako erregaien zerbitzuguneak; estankoak; teknologia- eta telekomunikazio-ekipoen dendak; etxeko animalientzako janaria saltzen dutenak; Internet, telefono edo posta bidezko merkataritza-dendak; tindategiak eta arropa-garbitegiak.

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk, Zallako Udalaren jabetzako sozietateak, dirulaguntzen plan estrategikoaren barruan Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren, Turismoaren eta Enplegurako Prestakuntzaren eskumen-arloetan tresnak ezartzeko ahalmena duenez, beharrezkotzat jotzen du bere baliabideak izatea eta dirulaguntzak onartzea, aurreko paragrafoan deskribatutako eta beren jarduera derrigor utzi behar izan duten kolektiboak laguntzeko, egonkortasun ekonomikoari euste aldera eta ahal den neurrian itxieragatik merkataritza-jarduerarik ez izatea arintzeko, Estatuak hala onesten duenean jarduerari berriro ekin diezaioten.

Ildo horretan, bai etetera behartuta egon den merkataritza-, ostalaritza- eta lanbide-sareak, bai ia bere jarduera erabat eten egin behar izan duenak salmenta-gai berria edo biltegi- hornikuntza arrunta behar du bere jarduera gauzatu ahal izateko, eta horrek inbertsioa egitea eskatzen du zailtasun ekonomikoko une honetan.

Laguntza honen xedea da zertxobait gehiago lasaitzea saltoki txiki, ostalaritza-establezimendu eta zerbitzu profesionalak, eta, zehazki, funtzionatu ahal izateko egin beharreko inbertsioari aurre egiten laguntzea.

2.— Aurrekontua.

Dirulaguntza honen aurrekontua 60.000 €-koa izango da.

Aurrekontu horretatik, gehienez ere 10.000 euro gordeko dira fakturazio-murrizketaren arloko eskaerarako, 35.000 euro ixtera behartutako merkataritza-establezimenduen eskaerarako eta 15.000 euro era berean ixtera behartutako ostalaritza-establezimenduen eskaerarako.

Kapituluren batean soberakinik balego, beste batean erabili ahalko litzateke laguntzaren aurrekontu osoa bete arte.

Zenbatekoa eskaera guztiei erantzuteko nahikoa ez balitz, proportzionalki banatuko litzateke.

Dirulaguntza emateko, berau eman zen xedea bete izana justifikatu beharko da.

3.— Onuradunak, betekizunak eta laguntzen zenbatekoa.

10 langile baino gutxiagoko saltoki, ostalaritza-establezimendu eta zerbitzu profesionalak (mikroenpresa, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinaren arabera), alde batera utzita haien figura juridikoa, baldin eta jarduera Zallan alta emanda badute 2020ko martxoaren 14a baino lehen eta 463/2020 Dekretuaren arabera jarduera eten egin behar izan bazuten edo euren fakturazioa % 75 edo gehiago murriztu bazaie

Onuradunek egunean izan beharko dituzte autonomoen 2020ko urtarrileko eta otsaileko ordainketa edo Erregimen Orokorrarena, hala badagokio, bai eta beste zerga-betebehar batzuk ere.

Halaber, administrazio publiko eskudunak jardueraren debekua kendu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, bere jarduera hurrengo 3 hilabete baino lehen lanari berriro ekin beharko diote

Laguntza justifikatutakoaren % 20 izango da eta gehienez ere 400,00 eurokoa establezimendu edo enpresa bakoitzeko.

Beste betekizun batzuk:

- Dirulaguntza bakarria emango da establezimendu/enpresa bakoitzeko, jarduera hori garatzen duten autonomoak zenbat diren gorabehera.

- Ezetsi egingo dira establezimendu berean edo pertsona juridiko berarentzat lan egiten duten autonomoek aurkezten dituzten banakako dirulaguntza-eskaerak.
- Oro har, diruz lagunduko ahalko dira establezimenduaren, zerbitzuaren edo gremioaren eremuarekin zerikusia duten salmenta-produktuen hornitzaileei egindako erosketa berriak, hau da, bilduma berriak, saltzeko ohiko materiala, irekitzeko erosketak, jarduera gremioen arabera gauzatu ahal izateko beharrezko hornidurak eta abar.
- Halaber, diruz lagundu ahalko da babes-ekipoak eskuratzea (NBE).
- Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira administrazio publiko eskudunak negozioak irekitzeko adierazitako data baino 20 egun lehenagotik hasi eta 30 egun geroagora arte egindako gastuak. Itxita behartuta egon ez diren negozioei dagokienez, diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira dirulaguntza aurkeztu baino 20 egun lehenagotik egindako gastuak.
- Dirulaguntza ordaintzeko, aurreko puntuan adierazitako datak dituzten fakturak aurkeztu beharko dira.
- BEZik gabeko zenbatekoa hartuko da aintzat.

4.- Dokumentazioa.

Dirulaguntza-eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

Eskaerak Zallako Udalaren zein Enkarterri Berri Zerbitzuak SL sozietate publikoaren erregistro orokorrean eta webgunean eskuragarri dagoen eskaera-ereduaren arabera aurkeztu beharko dira.

Onuradun guztiek honako hauek aurkeztu beharko dituzte eskaerarekin batera:

- Nortasun Agiri Nazionala (NAN).
Identifikazio Fiskalerako Zenbakia (IFZ) egiaztatzen duen txartela.
Egoitza-baimena — Atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ), eta pasaporte, hala badagokio.
Enpresa/autonomoaren ekonomia-jardueren gaineko zergaren ziurtagiria.
2020ko urtarrilean eta otsailean autonomoen kuota ordaindu izanaren ziurtagiria (sozietateentzat Gizarte Segurantzaren alta eman izanaren ziurtagiria).
Jarduera eteteko ebazpenaren kopia, edo, bestela, jarduera eteteko eskaera, edo fakturazioa % 75 edo gehiago murriztu izana sobera justifikatzen duen beste edozein dokumentu.
Diruz lagundu daitezkeen fakturen zerrenda.
(*Horren inguruko zalantzak badago, azken hiruhilekoko plantillaren batez besteko ziurtagiria eskatu ahalko da*).

5.— Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea oinarriak BAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hilabetekoa izango da,

Ostalaritza-Establezimenduen kasuan, eskaerak aurkezteko epeak, administrazio publiko eskudunak lokalen barruan baimentzen duen egunetik aurrera hasita hilabetekoa izango da

Oro har, onuradunek honako hauetan eskatzen diren betekizunak bete beharko dituzte: Enkarterri Berri Zerbitzuak SLren dirulaguntzen prozeduretarako Jarraibide Orokorak, Zallako Udalaren dirulaguntzen udal-ordenantza eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen araudia.

6.— Instrukzioa, proposamena eta ebazpena.

ENKARTERRI BERRI ZERBITZUAK SLri dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen instrukzioa egitea, eta berak egingo du ebazpen-proposamena.

Ebazpena. Organo eskuduna: Administrazio Kontseiluko presidentea.

Ebazteko modua: Txandaka egingo da, eta txanda bakoitzean taldekatuko dira, agintari eskudunaren arabera, jardueraren debekua kendu zaien eskaerak.

Prozeduraren ebazpena banaka jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde interesdunei, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 41.1 artikuluan ezarritakoarekin. Nolanahi ere, emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira. Laguntzen lerro berri hori bateragarria izango da beste administrazio publiko batzuek abian jar ditzaketenekin, baldin eta ez bada jasotzen COVID-19aren ondoriozko galeraren zenbatekoa baino dirulaguntza handiagoa. Bidezkoa bada, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Araudian ezarritako itzulketaprozedura jarriko da abian. Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bitartez ordainduko da, onuradunak adierazitako kontu-korrontean.

Laguntza ebazteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, laguntza-eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

7.— Administrazioaren eskubidea aurkeztutako dokumentazioa gainbegiratzeko eta ikuskatzeko.

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk eskubidea izango du dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako zinpeko deklarazioan jakinarazitako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko. Horretarako, dokumentazio osagarria eska dezake prozeduraren edozein unetan.

Onuradunek eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badute, prozeduran atzera egin dutela ulertuko da, eta, bidezkoa bada, jasotako dirulaguntza itzuli beharko dute.

8.— Aplikatu beharreko araudia.

Oinarri arautzaileetan ezarritakoaz gainera, laguntzok Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak (38/2003 Legea, azaroaren 17koa) eta berau garatzen duen araudiak arautuko dituzte.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak ahalmena izango du, aurreko paragrafoetan finkatutako helburuen arabera, erabakitzeke diruz lagunduko diren oinarri hauetan araututako laguntzetara aurkez daitezkeen eta aipatutako epigrafe edo irizpideetan jasota ez dauden kasuak.

UDALERRIKO ETA COVID-19AREN INPAKTUAK ERAGINDAKO SALTOKIAK, OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDUAK ETA ZERBITZU PROFESIONALAK BERRIZ IREKI EDO AKTIBATZEKO DIRULAGUNTZAK

AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS A LA REAPERTURA Y/O REACTIVACIÓN, DE LOS COMERCIOS, ESTABLECIMIENTOS DE HOSTELERÍA Y SERVICIOS PROFESIONALES YA EXISTENTES EN EL MUNICIPIO DERIVADAS DEL IMPACTO DEL COVID -19

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA

PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD

Izena eta bi abizenak / Nombre y dos apellidos	NAN / DNI
e-posta / e-mail	Telefono zk. / Nº teléfono
Noren ordezkartizan / En representación de	IFK / NIF - NAN / DNI
Izen komertziala / Nombre comercial	

ENPRESARI BURUZKO INFORMAZIOA

INFORMACIÓN RELATIVA A LA EMPRESA

Kalea / Calle	Zk. / Nº	Solairua / Piso	Aldea /Mano
Posta-kodea / Código Postal	Herria / Municipio	Lurraldea / Provincia	
e-posta / e-mail		Telefono zk. / Nº teléfono	
Enpresaren jardueraren describapena / Descripción de la actividad de la empresa			
Altaren data / Fecha de alta		EJZren epigrafe nagusia Epígrafe principal IAE	

UDALERRIKO ETA COVID-19AREN INPAKTUAK ERAGINDAKO SALTOKIAK, OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDUAK ETA ZERBITZU PROFESIONALAK BERRIZ IREKI EDO AKTIBATZEKO DIRULAGUNTZAK

AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS A LA REAPERTURA Y/O REACTIVACIÓN, DE LOS COMERCIOS, ESTABLECIMIENTOS DE HOSTELERÍA Y SERVICIOS PROFESIONALES YA EXISTENTES EN EL MUNICIPIO DERIVADAS DEL IMPACTO DEL COVID -19

Bat etorri COVID-19aren inpaktuak eragindako txikizkako saltoki, ostalaritza-establezimendu eta zerbitzu profesionalak laguntzeko xedez Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk, Zallako Udalaren jabetzako sozietateak, ezarritako laguntzen deialdiarekin,

bere erantzukizunpean eta kontratazio-organoren aurrean, honako hau ADIERAZTEN DU:

1. Deklaratzaileak/ordezkatzen duen enpresak adierazten du ezagutu, onartu eta bete egiten dituela Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk, Zallako Udalaren jabetzako sozietateak, onetsitako dirulaguntza hauek emateko premiazko deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak eta betebeharrak: "10 langile baino gutxiagoko saltoki, ostalaritza-establezimendu eta zerbitzu profesionalak (mikroenpresa, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduen I. eranskinaren arabera) berriz irekitzeko edo aktibatzeko, alde batera utzita haien figura juridikoa, baldin eta jarduera Zallan alta emanda badute 2020ko martxoaren 14a baino lehen eta 463/2020 Dekretuaren arabera jarduera eten egin behar izan bazuten edo euren fakturazioa % 75 edo gehiago murriztu bazaie", eta ziurtatzen du enpresak edo erakundeak eskaera-inprimakietan jasotako datuak egiazkoak direla.

2. Establezimendua itxi egin du jendearentzat, COVID-19aren ondoriozko alarma-egoera deklaratu ondoren, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, edo irekitzeko baimena izan arren, fakturazioan % 75eko edo gehiagoko murrizketa izan du alarma-aldian, jarduera-etenaldi bat eskatzeko eta aldeko ebazpena emateko.

3. Deklaratzailea/ordezkatzen duen enpresa sektore/jarduera honetakoa da:

4. Deklaratzailea/ordezkatzen duen enpresa jakitun da kontratazio-prozedura honen ondoriozko jakinarazpen guztiak posta elektronikoko helbidearen bitartez egingo direla.

Conforme a la convocatoria de ayudas establecidas por el Enkarterri Berri Zerbitzuak, S.L., Sociedad propiedad del Ayuntamiento de Zalla, con el objetivo de ayudar al comercio minorista, establecimientos de hostelería así como servicios profesionales derivadas del impacto del COVID-19

DECLARA, bajo su responsabilidad y ante el órgano de contratación:

1º. Que el declarante/Que la empresa que representa, indica que conoce, acepta y cumple las condiciones y obligaciones establecidas en las bases de la convocatoria urgente para la concesión de las "Ayudas económicas destinadas a la reapertura y/o reactivación de los comercios, establecimientos de hostelería y servicios profesionales de menos de 10 trabajadores (Microempresa según Anexo I del Reglamento (UE) No 651/2014 de la Comisión, de 17 de junio de 2014), independientemente de su figura jurídica, cuya actividad este dada de alta en Zalla con anterioridad a la fecha del 14 del marzo del 2020, que bien fueron afectados con la suspensión de su actividad según decreto 463/2020 o bien han sufrido una caída en su facturación en un 75% o superior" aprobadas por Enkarterri Berri Zerbitzuak, S.L. propiedad del Ayuntamiento de Zalla, y certifica la veracidad de los datos consignados por la empresa o entidad en sus formularios de solicitud.

2º. Que bien ha cerrado al público el establecimiento, impuesto tras la declaración del estado de alarma debido al Covid-19 según lo dispuesto en el RD 463/2020 del 14 de marzo o bien aun permitiéndose su apertura han tenido una reducción en su facturación de un 75% o más durante el periodo de alarma solicitando y resolviéndose favorablemente un Cese de Actividad.

3º. Que el declarante/Que la empresa que representa, pertenece al sector/ actividad de

4º. Que el declarante/Que la empresa que representa, consiente que todas las notificaciones derivadas del presente procedimiento de contratación sean realizadas a través de la dirección de su correo electrónico.

5. Deklaratzaileak/ordezkatzen duen enpresak egunean ditu Zerga Ogasunarekiko, Zallako Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak.

6. Deklaratzaileak/ordezkatzen duen enpresak ez du Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (38/2003 Legea, azaroaren 17koa) 13. artikuluan jasotako debekurik.

7. Deklaratzaileak/ordezkatzen duen enpresak ez du jaso emakida honekin bateraezina den laguntzarik kontzeptu berberetatik.

8. Jasotako dirulaguntzaren kontura egindako gastuen eta ordainketen egiaztagiriak, dokumentu elektronikoak barne, erakunde onuradun honek 2026. urtera arte jasoko ditu, dagokion administrazioaren egiaztapen- eta kontrol-jardueren xede izan daitezkeen bitartean.

9. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, onartzen du bere datuak Zallako Udalak laguntzak kudeatzeko ezartzen duen fitxategiaren parte izatea, eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuen (HAZ) bidez baliatu ahal izango ditu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak.

10. Baimena ematen die Enkarterri Berri Zerbitzuak SLri eta, ondorioz, Zallako Udalari, deialdi honen xede diren kontzeptu berberetarako eskatutako dirulaguntzei buruzko informazioa eskatzeko beste administrazio batzuei.

Horregatik guztiagatik,

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLUri honako hau **ESKATZEN DIO**:

Eskaera onartua izatea eta dagokion laguntza ematea arestian adierazitako laguntzen deialdiarekin bat etorritz.

5º. Que el declarante /Que la empresa que representa, está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Tributaria, el Ayuntamiento de Zalla y con la Seguridad Social.

6º. Que el declarante/Que la empresa que representa no se encuentra incurso/a en ninguna de las prohibiciones del art 13 de La Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones.

7º. Que el declarante/Que la empresa que representa, no ha recibido ayudas en el mismo concepto, que resulten incompatibles con esta concesión.

8º. Que la documentación acreditativa de los gastos y pagos efectuados con cargo a la subvención recibida, incluyendo en su caso los documentos electrónicos, obrarán en poder de esta entidad beneficiaria hasta el año 2026 en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control de la Administración correspondiente.

9º. Que con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre sobre Protección de datos de carácter Personal, acepta que sus datos formen parte del fichero que establezca el Ayuntamiento de Zalla para gestionar las ayudas y podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición a través de los Servicios de atención Ciudadana (SAC).

10º Autoriza a Enkarterri Berri Zerbitzuak S.L. y por tanto, al Ayuntamiento de Zalla, a solicitar información, a otras Administraciones, relativa a las subvenciones solicitadas para los mismos conceptos objeto de la presente convocatoria.

Por todo lo cual,

SOLICITA a, Enkarterri Berri Zerbitzuak S.L.U.; Sea aceptada su solicitud y se le conceda la ayuda que corresponda conforme a la convocatoria de las ayudas arriba indicada.

Data / Fecha

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo erakundearen zigilua

Firma del representante legal y sello de la empresa o entidad

(Lekua, data eta deklaratzaillearen sinadura)

*** Eratutako pertsona juridikoentzat soilik**

(Lugar, fecha y firma del declarante)

**Sólo para personas jurídicas constituidas.*

UDALERRIKO ETA COVID-19AREN INPAKTUAK ERAGINDAKO SALTOKIAK, OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDUAK ETA ZERBITZU PROFESIONALAK BERRIZ IREKI EDO AKTIBATZEKO DIRULAGUNTZAK

AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS A LA REAPERTURA Y/O REACTIVACIÓN, DE LOS COMERCIOS, ESTABLECIMIENTOS DE HOSTELERÍA Y SERVICIOS PROFESIONALES YA EXISTENTES EN EL MUNICIPIO DERIVADAS DEL IMPACTO DEL COVID -19

HIRUGARRENEI ALTA EMATEKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO DE ALTA DE TERCEROS

Izena eta bi abizenak / Nombre y dos apellidos	NAN / DNI
Noren ordezkari / En representación de	IFK / NIF - NAN / DNI
Izen komertziala / Nombre comercial	

Kontu korronteko zkia (IBAN) / nº cta.cte (IBAN)																			
Izena eta bi abizenak / Nombre y dos apellidos del titular																			
Titularraren nortasun agiriaren ZK /Num del DNI del titular																			
País	DC	Entidad				Oficina				DC	Nº Cuenta								

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua Firma del/ de la representante legal y sello de la empresa	

(*) Kontuaren titulartasun-ziurtagiria ere gehituko da, erabilgarritasunaren arabera.

Diligentzia: Dokumentua sinatzen duenak bere gain hartzen du arestian zehaztutako datuen ardura, bai datu orokorra bai bankuko datuena. Datu horiek identifikatzen dute legezkoekin ordainketak jasotzeko baliatu nahi duen **BANKU-ERAKUNDEA** eta kontua. Hori horrela izanik, **Enkarterri Berri Zerbitzuak SL (Zallako Udala)** salbuetsita geratuko da datu horietan akatsak edo omisioak egitearen ondoriozko erantzukizunetatik.

(*) Se acompañará certificado de titularidad de cuenta, según disponibilidad.

Diligencia: El abajo firmante se responsabiliza de los datos detallados, tanto generales como bancarios, que identifican la cuenta y la ENTIDAD FINANCIERA a través de las cuales se desean recibir los pagos que puedan corresponder, quedando Enkarterri Berri Zerbitzuak S.L. (Ayuntamiento de Zalla) exonerado de cualquier responsabilidad derivada de errores u omisiones en los mismos.

UDALERRIKO ETA COVID-19AREN INPAKTUAK ERAGINDAKO SALTOKIAK, OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDUAK ETA ZERBITZU PROFESIONALAK BERRIZ IREKI EDO AKTIBATZEKO DIRULAGUNTZAK

*AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS A LA REAPERTURA Y/O REACTIVACIÓN, DE LOS COMERCIOS, ESTABLECIMIENTOS DE HOSTELERÍA Y SERVICIOS PROFESIONALES YA EXISTENTES EN EL MUNICIPIO DERIVADAS DEL IMPACTO DEL COVID -19***ESKAERAREN XEDE DIREN AURKEZTUTAKO FAKTUREN ZERREDA**

RELACIÓN DE FACTURAS PRESENTADAS OBJETO DE LA SOLICITUD

Data Fecha	Azalpena Concepto	Hornitzailea Proveedor	Faktura zk. N.º Factura	Oinarria (€) Base (€)	Guztira (€) Total (€)
				Guztira / Total	

UDALERRIKO ETA COVID-19AREN INPAKTUAK ERAGINDAKO SALTOKIAK, OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDUAK ETA ZERBITZU PROFESIONALAK BERRIZ IREKI EDO AKTIBATZEKO DIRULAGUNTZAK

AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS A LA REAPERTURA Y/O REACTIVACIÓN, DE LOS COMERCIOS, ESTABLECIMIENTOS DE HOSTELERÍA Y SERVICIOS PROFESIONALES YA EXISTENTES EN EL MUNICIPIO DERIVADAS DEL IMPACTO DEL COVID -19

Baimena ematen diot Zallako udalari eskabide honen inguruan niri dagozkidan administrazio-egintza guztiak honako bitartekoaz komunikatzeko, dokumentazioa elkar-trukatzeo eta jakinarazpenak bidaltzeko, horrek balio fede-emaile eta frogatzaile osoa izanik.

Autorizo al Ayuntamiento de Zalla al uso del medio siguiente como canal de comunicación, intercambio de documentación y notificación con pleno valor fehaciente y probatorio de cuantos actos administrativos me afecten en relación a la presente solicitud.

Posta elektronikoa (Jakinarazpena hartu izanaren agiria bidali behar da)

Correo electrónico (Imprescindible realizar acuse de recibo)

Urriaren 1eko 39/2015 Legean (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena) eta indarrean dagoen gainerako legerian ezarritakoarekin bat etorritik, Zallako Udala Udalari BAIMENA EMATEN DIOT, eskaera hau dela eta:

Conforme a lo establecido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y demás legislación vigente, AUTORIZO al Ayuntamiento de Zalla, en relación con la presente solicitud:

Zallako Udalari BAIMENA EMATEN DIOT AUTORIZO al Ayuntamiento de Zalla a solicitar a **eskaera hau egiteko behar den informazioa** otras administraciones la información necesaria **beste administrazio batzuei eska diezaien.** relativa a la presente solicitud.

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

NAN, egoitza baimena, AIZ edo pasaporte		DNI, permiso de residencia, NIE o pasaporte
Identifikazio Fiskalerako Zenbakia (IFZ) egiaztatzen duen txartela		Tarjeta acreditativa de Número de Identificación Fiscal (NIF)
Dagozkien fakturen kopia		Copia de facturas correspondientes
Diruz lagundu daitezkeen fakturen zerrenda		Relación de facturas subvencionables
Enpresa/autonomoaren ekonomia-jardueren gaineko zergaren ziurtagiria		Certificado de Impuesto de Actividades Económicas de la empresa / autónomo
2020ko urtarrilean eta otsailean autonomoen kuota ordaindu izanaren ziurtagiria edo sozietateentzat Gizarte Segurantzari alta eman izanaren ziurtagiria		Recibo justificativo de haber procedido al pago de autónomos durante los meses de enero y febrero de 2020 o alta en Seguridad Social para Sociedades
Jarduera eteteko ebazpenaren kopia, edo, bestela, jarduera eteteko eskaera, edo eskaera egin ez izana justifikatzen duen beste edozein dokumentu		Copia de Resolución de Cese de actividad o en defecto Solicitud de dicho cese, o cualquier otro documento que justifique sobradamente la reducción de la facturación en un 75% o superior

AURKEZTEKO EPEAK ETA MODUAK:

PLAZOS Y MODOS DE PRESENTACIÓN:

Eskaerak aurkezteko epea oinarriak BAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hilabetekoa izango da.

Ostalaritza-Establezimenduen kasuan, eskaerak aurkezteko epeak, administrazio publiko eskudunak lokalen barruan baimentzen duen egunetik aurrera hasita hilabetekoa izango da

Oro har, onuradunek honako hauetan eskatzen diren betekizunak bete beharko dituzte:

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLren dirulaguntzen prozeduretarako Jarraibide Orokorrak, Zallako Udalaren dirulaguntzen udal-ordenantza eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen araudia.

Las solicitudes podrán presentarse a partir del día siguiente a la publicación de las presentes bases en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y con un plazo de un mes.

En el caso de los negocios de hostelería se tomará como plazo un mes contado a partir del día siguiente a cuando la autoridad competente permita la entrada al establecimiento.

Con carácter general, los beneficiarios deberán reunir las condiciones exigidas en las Instrucciones Generales para los procedimientos de subvención de Enkarterri Berri Zerbitzuak S.L. Ordenanza municipal de subvenciones del Ayuntamiento de Zalla y por la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y Reglamento que lo desarrolla.

Telematikoki/Telemáticamente: <https://sac.zalla.eus>

Posta elektronikoa/Correo electrónico: sac@zalla.eus

Posta arruntaren bidez: Posta bulegoetan, posta ziurtatu irekiaren bidez.

Por correo postal: En las oficinas de Correos mediante correo certificado abierto.

Informazio gehiagotarako deitu 010 (Zallatik) edo 946390001 (Zallatik kanpo)

Para más información llamar al 010 (desde Zalla) o al 946390001 (desde fuera de Zalla)

DATUEN BABESA		PROTECCIÓN DE DATOS
UDALERRIKO ETA COVID-19AREN INPAKTUAK ERAGINDAKO SALTOKIAK, OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDUAK ETA ZERBITZU PROFESIONALAK BERRIZ IREKI EDO AKTIBATZEKO DIRULAGUNTZAK	Tratamendua/Tratamiento	AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS A LA REAPERTURA Y/O REACTIVACIÓN, DE LOS COMERCIOS, ESTABLECIMIENTOS DE HOSTELERÍA Y SERVICIOS PROFESIONALES YA EXISTENTES EN EL MUNICIPIO DERIVADAS DEL IMPACTO DEL COVID -19
Zallako Udalak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak tratatuko direla honako araudi hauekin bat etorrira: (EBren) 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (DBEO) eta abenduaren 5eko 3/2018 lege organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Betiere, interesdunaren legezko ordezkariaren baimena izanda tratatuko dira.	Tratamenduaren arduraduna/Responsable del tratamiento	Ayuntamiento de Zalla, y le informa que serán tratados de conformidad con el Reglamento (UE) 2016/679 de 27 de abril de 2016 (RGPD) y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales (LOPDGDD), con el consentimiento del representante legal del interesado.
Eskaera izapidetzea eta horri erantzutea, ezarritako administrazio prozeduraren arabera. Udalerriko eta covid-19aren inaktuak eragindako saltokiak, ostalaritza-establezimenduetan eta zerbitzu profesionalak berriz ireki edo aktibatzekeo dirulaguntzak eskaerak izapidetzearen eta kudeatzearen gaineko zerbitzua ematea, Udal eskumenen esparruan, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako tratatzeari eragozpenik jarri gabe, aplikatu daitezkeen legeriaren arabera.	Helburua/Finalidad	Tramitación de la solicitud y darle respuesta, conforme al procedimiento administrativo establecido. Prestar servicios de tramitación y gestión, que procedan en el ámbito de las competencias del Ayuntamiento, en relación con el procedimiento de ayudas económicas destinadas a la reapertura y/o reactivación, de los comercios, establecimientos de hostelería y servicios profesionales ya existentes en el municipio derivadas del impacto del covid -19, sin perjuicio de su posible tratamiento posterior para fines históricos, estadísticos o científicos, de acuerdo a la legislación aplicable.
Emandako datuak administrazio publikoen eskura dauden xedapenetan legez ezarritako epeetan gordeko dira, tratamenduaren ondorioz sortutako balizko erantzukizunei arreta emateko eta beti gordetzeko eta erreserbatzeko betebeharra beteta.	Kontserbazioa/Conservación	Los datos proporcionados se conservarán durante los plazos legalmente previstos en las disposiciones aplicables a disposición de las Administraciones Públicas, para la atención de las posibles responsabilidades nacidas del tratamiento y siempre bajo el deber de secreto y reserva.
Datuak tratatzeko legitimazioa zuri eskatzen zaizun eta eskaera honekin batera entregatzen duzun baimen libre, argi, informatu eta agerian oinarritzen da, hori kentzeko aukera eragotzi gabe.	Tratamenduaren legitimazioa/Legitimación del tratamiento	La legitimación para el tratamiento de los datos está basado en el consentimiento libre, expreso, informado e inequívoco que se le solicita, sin perjuicio de la posible retirada del mismo.
Datuak eskumenak dituzten administrazio publikoek jakinaraziko zaizkie. Beste entitate batzuei ere jakinaraziko zaizkie, zuzenean Udalak egiten ez dituen jarduerak egiteko. Jarduera horiek kontratu edo hitzarmen batean arautuko dira, eta horietan, datuak tratatzeko baldintzak ezarriko dira, araudia betetzen dela bermatzeko.	Hartzaileak/Destinatarios	Los datos se comunicarán al Administraciones Públicas con Competencias. Y a otras entidades para el ejercicio de actividades que no se realicen directamente por el Ayuntamiento y que vendrán reguladas en un contrato o convenio, en los que se establecerán las condiciones del tratamiento de datos para asegurar el cumplimiento de la normativa.
Nahi izanez gero, datu pertsonalak sartzeko, zuzentzeko, oposizioarako, ezeztatzeko, mugatzeko eta eramangarritasunerako (hala badagokio) eskubideak erabili ditzakezu, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera. Horretarako, jarri harremanetan ZALLAKO UDALAREN Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzuarekin. Zallako Kosme Bibanko kalean dago, 2. zenbakian, PK 48860 (Bizkaia). Gainera, datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitzake, dpd-dbo@zalla.eus helbidera mezu elektronikoa bat bidalita. Eskaerak formulario elektronikoa bidez ere bete daitezke, https://www.zalla.org/protecciondedatos webgunean (Datuak Babesteko Eskubideak).	Eskubideak/Derechos	Si lo desea, Vd. podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, oposición, cancelación, limitación y portabilidad (si procediesen) de los datos personales, según lo establecido en la legislación vigente, dirigiéndose al Servicio Secretaría General del AYUNTAMIENTO DE ZALLA, sito en la calle Kosme Bibanko nº. 2 de Zalla, C.P. 48860 (Bizkaia). Así como contactar con nuestro Delegado de Protección de Datos, mediante correo electrónico a la dirección: dpd-dbo@zalla.eus. También para ello disponen de solicitudes a través del formulario electrónico disponible en https://www.zalla.org/protecciondedatos (Derechos de Protección de Datos). Por otra parte, le informamos que usted puede ejercitar un procedimiento de tutela de derechos ante la Agencia Vasca de Protección de Datos (http://www.avpd.euskadi.eus/) y la Agencia Española de Protección de Datos (https://www.aepd.es/).
Bestalde, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari aurkez diezaikezu eskubideen tutoretza prozedura bat (http://www.avpd.euskadi.eus/), baita Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan ere (https://www.aepd.es/).		